

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

ARABAKO BATZAR NAGUSIAK

16/2020 Mozioa, otsailaren 26koa, euskal kultur ondarearen arloko araudiaren pean dauden Eraikinen Ikuskapen Teknikoei buruz, eta tokiko entitateei arlo horretan dituzten betebeharrak betetzeko babesa emate aldera

Arabako Batzar Nagusiek, 2020ko otsailaren 26an egindako osoko bilkuran, ondorengo mozioa onetsi zuten:

16/2020 Mozioa, otsailaren 26koa, euskal kultur ondarearen arloko araudiaren pean dauden Eraikinen Ikuskapen Teknikoei buruz, eta tokiko entitateei arlo horretan dituzten betebeharrak betetzeko babesa emate aldera.

1. Arabako Batzar Nagusiek Arabako Foru Aldundiari eskatzen diote jarrai dezala laguntza-, kontrol- eta jarraipen-neurriak egiten eraikinen ikuskapen teknikoetan, bai eta haien ondoriozko kontserbazio-lanetan, Arabako Lurralde Historikoan euskal kultur ondarearen arloko araudiaren pean dauden eraikinetan.

2. Arabako Batzar Nagusiek Arabako Foru Aldundiari eskatzen diote jarrai dezala laguntza ematen Arabako Lurralde Historikoko tokiko entitateei, haiek sustatutako eraikinak kontserbatzeko eta zaharberritzeko esku-hartzeak sustatzeko diru-laguntzen deialdietan, euskal kultur ondarearen kontserbazioaren arloan dituen betebeharrak betetzeko bere titulartasuneko eraikinei dagokienez.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko otsailaren 26a

Presidentea

PEDRO IGNACIO ELÓSEGUI GOZNÁLEZ DE GAMARRA